

A white laptop keyboard is visible in the upper right corner. A spiral notebook with a black metal binding is on the left side. A pencil lies horizontally on the right side. The background is a plain white surface.

Hezkuntza

COVID19rekin bizitzen
eta ikasten jarraitzeko plana

ehbildu



Sarrera

Ondorengo lerroetan konfinamendutik modu ordenatu, koordinatu eta mailakatuan ateratzeko, Hezkuntza sistemara begirako planteamendu bat egiten dugu gainerako Hezkuntza komunitateko eragileekin partekatu eta adosteko borondatearekin. Izan ere, SARS-Cov-2arekin bizitzeko epe motz zein ertainean, eman beharreko pausuak ondo emateko ezinbestekoa izango baita osasun jarraibideak jarraitu eta bermatzeaz gain, guztiok behar bezala egoeraren garrantziaz jabetzea. Horrek ezinbestean, ezarri beharreko neurrien oinarriak, arrazoiketa ezagutzeaz gain, konpartitzea eta adostea eskatzen du; gisa horretara bakarrik egin dezakegulako aurrera, ahaldunduta eta kolektiboki. Guztiok batera.

Kontutan izan behar dugu, orain arte konfinamenduan egon izan bagara birusaren transmisio maila jaisteko eta osasun sistema ez gainditzeko izan dela; eta orain etxetik ateratzean birusak gure artean jarraituko duela txerto edo tratamendu eraginkorra lortu arte. Alta, gizarte oso bat adineko, heldu zein gazte eta haurrak denbora luzez etxeetan konfinaturik izateak ekar ditzakeen bestelako osasun, hezkuntza eskubide eta aukera berdintasunarekin loturiko ondorioak ere larriak izan daitezkeela ezin dugu bistatik galdu. Bereziki familia zaurgarrietan edo eta bestelako zailtasun edo eta arazo izan ditzaketenetan. Horregatik, eta beti ere osasun publikoak ezarritako adierazleak gidatuta poliki – poliki egoera berrira irekitzeko prestatu behar gara, ahalik eta berme gehienekin, guztion Osasuna, osasun publikoa lehenetsiz; eta alboratu gabe Hezkuntza eskubidea, eskubide sozialak, zibilak eta ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzeko baldintzarik egokienak eraikitzea. Beti ere, irakasle, ikasle, ikastetxeko gainerako langile eta familien ongizatea helburu izanda.

0.- Kontestua

Aurreikuspen guztiek oinarri bezala hartzen dute epe laburrean ezin izango zaiola SARS-CoV-2 koronabirus berriaren transmisioari aurre egin, eta konfinamenduaren baretzea planifikazio egokirik gabe egiten bada, birusaren susperraldiak izango ditugula datozen hilabeteetan. Birusak duen transmisio gaitasun altuagatik, inkubazio epe motzgatik eta herritarren immunitate baxuagatik. Nahiz eta immunitateari buruz oraindik ez-ezagutza handia dagoen; oraindik ere SARS-CoV-2ari buruz ezer gutxi baitakigu.

Susperraldi berriek heriotza gehiago eragingo dute, osasun bitartekoen erabilera intentsiboarekin, saturazio ondorioekin eta berriro ere sarea gainditzeko arriskuarekin.

Infekzioaren kontrolerako neurriak erabilia ere, normala izango da kontrol epidemiologikoari ihes egingo dioten kasu berriak izatea. Kontziente izan behar dugu, nahiz eta kasurik hoberenean intentsitate baxuan izan, birusarekin eta birusak sortuko dituen kasu eta ondorioekin bizi beharko dugula txertoa atera bitartean gutxienez.

Halaber, prestatu behar dugu Hezkuntza sistema SARS-CoV-2 arekin bizitzeko eta etorkizuneko balizko epidemia zein pandemia larrien aurrean prestatua egoteko oinarrizko sistema izateko, azkar eta eraginkortasunez erantzuteko gai izango dena, edonolako agerraldi baten eta salbuespen egoera batean. Beti ere, ikasle guztien aukera berdintasuna eta hezkuntzarako eskubidea bermatuz.



1.- Ikastetxeen irekiera mailakatu eta ordenaturako gidalerro nagusiak:

- Deseskalada plan orokorraren baitakoa izatea.
- Osasun Sailak markatua eta gidatua. Lidergo argiarekin.
- Osasun Publikoaren gidaritzapean, eta zonaldeko Erakunde Sanitario Integratuaren jarraipenarekin.
- Irizpide orokorren baitakoa, baina ESI eta udal-herriko osasun egoeraren arabera.
- Osasun neurriak bermatuko dituen: higiene zein distantziak zaintzeko espazioak zein ikasle/ irakasle ratioak kontutan hartuko dituen.
- Ikastetxe bakoitzaren ISEK adierazlearen arabera indartze zein salbuespen neurriak.
- Konfinamendura bueltatzeko ikasketa baldintzak bermatzea.
- Gela egonkor, ZIG gela eta dibertsifikazio geletako ikasleentzat salbuespeneko neurriak hartzea, ikasketa presentzialak lehenetsiz, beti ere osasun neurriak bermatu daitezkeen egoeretan. Hala ere, ikastetxe bakoitzean egon daitezkeen ikasleen ezaugarrien arabera, ikastetxeek erabaki ahalko dute ikasle hauentzat edo batzuentzat egokia izan daitekeen edo ez –osasun ikuspegitik eta beti ere ikuspegi guztiak baloratuz- klase presentzialak ezartzea. Testek mugak dituztela dakigun arren, gela hauetako irakasle eta ikasleei test serologiko eta PCRa egitea planteatu daiteke, osasun epidemiologikotik ezarritako irizpideen baitan eta jarraipena eginez ikasturte osoan zehar.
- Garbiketa eta desinfekzio plangintza zorrotz bat egon behar du ikastetxe bakoitzean. Kontutan izanik ez dela gauza bera haur eskola bat, Bigarren hezkuntzako ikastetxe bat edo eta Lanbide Heziketako ikastetxe bat.
- Planteamenduak gizarte arrakalari aurre egin behar dio.
- Gaixotasun kroniko, luzeak izan ditzaketen ikasleekin ospitaletara bideratzen den errekurtsotik, etxeetan irakasketa-ikasketa prozesua bideratzeko aukera irekiko da.
- Hezkuntza Bereziko zentro espezializatuak diren ikastetxeak, bakoitzak bere plan berezitua izan beharko du, artatzen dituen pertsonen mendekotasun eta desgaitasun ezaugarri eta egoerei hertsiki egokitua.
- Gela batetan ikasle edo irakasle batek Covid19agatik positibo emango balu, gela horretako irakasle eta ikasleei proba egingo litzaieke.
- Araubide bereziko ikasketa eta zentroek dituzten berezitasun eta desberdintasunengatik, zentro bakoitzak bere plan berezitu eta egutegia adostu beharko du.

2.- Konfinamenduaren baretzea garatzeko beharrezkoa da:

Konfinamenduaren baretzean balizko eszenatokiak planteatzerakoan, ezinbestean kontutan izatekoak dira gure Hezkuntza Sistemaren ezaugarriak eta aldi berean ziurtatu beharreko bermeak hezkuntza zein osasun ikuspegitik, ikasle, irakasle zein ikastetxeo langile –garraiokoak, jantokikoak, hezitzaileak- eta familiei.

Ikasleen arteko arrakala, desberdintasunak ez areagotzeko neurriak hartzea. Zentzu horretan, ikastetxe bakoitzaren ISEK adierazlea eta ikastetxeak artatzen dituen familien egoera sozial – ekonomiko – kulturala kontutan hartuko da.

- Gelako irakasle/ikasle ratioa murriztea.
- Eskola garraioaren egokitzapena higiene eta distantzien neurrien arabera. Eta beharra duten pertsonen mugatzea.
- Ikastetxeo gelen – espazioen egokitzapena: gelen erabilera. Espazioan erabilera.
- Espazio komunak erabiltzeko protokoloa: liburutegiak, teknologia gelak, laborategiak, pasiloak, komunak, aldagelak.
- Ikastetxeo Lanpostuen zerrenda areagotzea, egokitzea errealitate berriari aurre egiteko.
- Irakasleen arteko bileretarako protokoloa: klaustroak, mintegiak.
- Irakasle eta Berritzegune zein Ikuskaritzaren arteko harremanetarako protokoloa.
- Ikastetxera sarrera eta irteerak antolatze protokoloa.
- Jolas garaia berrantolatzea
- Heziketa Fisikoko saioaren egokitzapena
- Garbiketa indartzea eta desinfekzio plangintza
- Materialaren erabilerarako protokoloa
- Eskolaz Kanpoko Jardueren deseskalada plangintza propioa: eskola kirola, arte eta kultura ekintzak, robotika edo denak direlakoak ekintzak. Arlo honetan deseskalada plan propio bat egin beharko da.

3.- Hezkuntzan fase desberdinak garatzeko eta ondorioz irakasle, ikasle eta gainerako langileak ikastetxeetara bueltatzeko ezinbestekoa izango da:

- Hezkuntza Saileko Lan osasun eta arriskuen zerbitzuek, ikastetxe bakoitzean prebentziorako, osasun eta segurtasun neurriak betetzeko plangintza eta esku hartzea egitea.
 - Prebentziotik ikastetxeko arduradunarekin elkarlanean eta lagunduz, ikastetxe bakoitzarentzat egin beharrekoa izango da; izan ere ikastetxe bakoitzak bere ezaugarriak baititu.
 - Plangintza ikastetxe bakoitzean egin beharko da ikastetxeak ikasleei ireki aurretik.
 - Prebentzioko arduradunek ikastetxe bakoitzari jarraipena egin eta laguntza eskaini beharko diote ikasturte osoan zehar.
 - Hezkuntza Saileko Lan osasun eta arriskuen zerbitzua indartzea.
 - Arestian aipatutakoek parte hartuko luketen udalerrietako jarraipen batzordeak sortu. Udal mailan garbiketa eta mantenua modu eraginkorrenean koordinatu ahal izateko.
- Ikastetxetako RPTak indartzea.
 - Irakasle gehiago jartzea taldeak egokitzeko. 15eko ratioak ezartzeko.
 - Bi lerro baino gehiagoko ikastetxeetan eta espazio gabeziak dituzten ikastetxeetan bereziki.
 - Ingurune sozial – ekonomiko konplexuak artatzen dituzten lehen hezkuntza eta institutu guztietan RPTan, digitalizazioan sakondu eta egoera eguneratzeko, irakasle bat gehiago doitu zeregin horretarako.
 - Covid19ak areagotutako arrakala eta ikasleen arteko mailaketak berdintzeko HBI altua eta ISEK altuko ikastetxeetan.
 - Gela Egonkorreko, ZIG gelak indartzeko.
 - 2020/2021 ikasturteko materiala egokitzeko.



- Ikasturte hasierako jarraibideak egokitzea.
 - Ikastetxeei autonomia emateko ordutegi, saio eta egutegiaren antolakuntzarako. Beti ere ikasturtean bete beharreko ordu kopurua beteaz.
 - Aukera emanez:
 - Semi-presentzialerako.
 - Gelak taldekatzeko.
 - Ordutegi trinkoak ezartzeko.
 - Ordutegi desberdinak izateko ikastetxean.
 - Bi egunetik behin edo egoki ikusten den zikloetan txandakatzeko gela bereko bi taldeak edo egoki izan daitezkeen taldeak (10ek bi egunez presentziala, besteak online eta txandakatuz joateko)
- Ordenagailu, konexio eta bestelako baliabideak.
 - Ikastetxe guztietan baliabide teknologiko libre, digital, ordenagailu, konexioak behar diren bitartekoak bermatzea ikasle zein irakasleei. Saio ez presentzialak, formakuntza eta momenturen batean berriro konfinamendura itzuli beharko balitz, itzultzeko.
- Higiene neurriak indartzeko materiala:
 - Maskarak
 - Xaboia
 - Gel hidroalkoholikoak
 - Garbiketa indartzeko desinfekzio produktuak

4.- Faseak

Fase batetik bestera pasatzeko arestian aipaturiko neurriak ziurtatu beharko dira. Beti ere Osasun Publikoaren gidaritzapean.

1. Fasea

- Arrisku-kolektiboetako irakasleak zein langilean edo eta birusari sentsibleak izan daitezkeenak –irakasle zein ikasle- ezin izango dira klase presentzialetara itzuli Covid19aren txerto edo eta tratamendu eraginkorra izan arte. Bestelako zeregin batzuk emango zaizkie irakasle eta langileei (etxetik telelaguntza, hezkuntza premia bereziak dituztenei arreta pertsonalizatua eta abar).
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeen desinfekzioa
- Haurreskolak Partzuergoko eta HHko zentroen desinfekzioa
- Lanbide Heziketako ikastetxeen desinfekzioa
- 3-6 adin tarteko gelen eta espazio komunak desinfekzioa
- Bigarren Fasean sartzeko, testek mugak dituztela dakigun arren, Haurreskolak Partzuergoko eta HHko zikloetan ari diren irakasleei (abian jarriko diren ikastetxeetan eta itzuliko diren irakasleei) test serologikoak eta positibo ematen dutenei PCR egingo zaie. Arrisku-kolektiboetakoak diren irakasleek ezin izango dute ziklo horretan klaserik eman Covid-19ak irauten bitartean. Ikastetxeetako kide guztiak egunero lanera sartzekoan:
 - Tenperatura hartzea.
 - Eskuen garbiketa.
 - 3 urtetik gorakoekin maskararen erabilera
- Eskola garraioko enpresekin 2020/2021 ikasturterako osasun neurriak adostu eta planifikatzeari ekingo zaio:
 - Distantziak, maskara.
 - Osasun neurriak bermatzeko egin beharreko egokitzapenak, beharrezkoak baldin badira: buelta bat baino gehiago ikastetxera, zerbitzua zabaltzea, autobus handiagoak erabiltzea posible denean...
 - Eskola Bideak bultzatuko dira
 - Garbiketa
 - Ahal den kasuetan garraio kolektiboa ekiditea aholkatuko zaie familiei.



2. Fasea

- Kontziliatzeko arazoak dituzten eta familia zaurgarrietako (beti akreditatua) familiek aukera izango dute haurrak ikastetxera eramateko. Ondorengo protokoloa jarraituz egunero:
 - Tenperatura hartzea
 - Ikastetxe sarreran protokoloan ezarritako osasun egoerari buruzko galderak egingo zaizkie gurasoei.
 - Ikastetxera gurasoak ezingo dira sartu.
 - Sarreran eta irteeran haurrak eskuak garbitu beharko dituzte.
 - II. Batxilergoko ikasleak bueltatuko dira. Egunero ondorengo neurriak bermatuz:
 - Tenperatura hartzea
 - Sarreran eta irteeran ikasleak eskuak garbitu beharko dituzte.
 - Gela beretik ezingo dira talde desberdinak pasa. Gelen arteko mugikortasuna ekidingo da.
 - Gela Egonkor, ZIG geletako ikasleak nahi dutenak bueltatu ahal izango dute. Borondatezkoa izango da. Hala ere ikastetxe bakoitzak erabakiko du, bere ikasleen ezaugarrien arabera gela hauetara buelta noiz eta nola egingo den, beti ere osasun irizpideak gidatuta eta hezkuntza zein bestelako eskubideak urratu gabe. Testek mugak dituztela dakigun arren, gela hauetako irakasle eta ikasleei test serologikoak eta PCR testak egiteko aukera planteatu daiteke, ikasgelan egon daitezkeen ezaugarrien baitan. Halaber, egunero ondorengo neurriak hartu beharko dira:
 - Tenperatura hartzea
 - Ikastetxera gurasoak ezingo dira sartu.
 - Ikastetxe sarreran gurasoei protokoloan jasoriko osasun egoera baloratzeko hainbat galdera egingo zaizkie.
 - Sarreran eta irteeran haurrak eskuak garbitu beharko dituzte.
 - Aldentze neurria ziurtatu ezin denean maskarekin egon beharko dute.
- Orduetgia murrizteko aukera egongo da eta orduetgia egokitzeko, taldea bi zatitan banatuko balitz. Horrela talde bakoitzak ordu kopuru bera izanez, edo gelaren ezaugarrien arabera.
- LHko Goi mailako eta Erdi mailako 1go mailakoak.
 - Oinarrizko Lanbide Heziketa. Neurriak:
 - Tenperatura hartzea.
 - Sarreran eta irteeran haurrak eskuak garbitu beharko dituzte.
 - Aldentze neurria ziurtatu ezin denean maskarekin egon beharko dute.
 - Ikasleek enpresetan egiten duten lantokiko prestakuntza moduluetan osasun neurriak bermatu behar dira. Gauza bera DUAL modalitatean.

3. Fasea: Ikasturte hasiera

Osasun egoerak ahalbidetuko balu ikasgeletara bueltatzea: modu mailakatu eta progresiboan izango litzateke itzulera. Aldez aurretik, ikastetxeen desinfekzioa, garbiketa egingo litzateke.

Ikastetxe bakoitzak bere lan osasun eta arriskuen prebentziorako plana egingo izan beharko du Hezkuntza saileko zerbitzuen ardurapean eta elkarlanean.

Ikastetxe guztietan osasun neurriak betetzeko baliabideak irailak 1rako egon beharko dira: esku larruak, gelak, maskarak, desinfekziorako produktuak.

Espazioak egokituta.

Ikastetxeetan garbiketa eta desinfekzioa indartu beharko da.

Irakasleen LPZ ikastetxe bakoitzari bermatua egon beharko da.

Ratioak egokituta egon beharko dira.

Jantoki zerbitzuaren planifikazioa eta egokitzapena 2020/2021 ikasturtera begira:

- Ikastetxe bakoitzak bere errealitatera egokitu beharko du ordutegia, txanda desberdinak edo eta hilabete batzuetan jantoki zerbitzua murriztea, edo ez emateko aukera.

- Jantokiko osasun neurriak egokitu beharra:

- Mahaian hartu beharreko distantziak.

- Mahai tresnak nola eta noiz ezarri.

- Jantokira sarrerak eta irteerak

- Jantokira txandako sartu beharreko ikasle kopurua, espazioaren arabera.

- Garbiketa

- Langileentzat norbere babeserako ekipoa: bata, maskarak, esku larruak.

- Elikagaiak sartzeko, gordetzeko neurriak.

Haurreskolak Partzuergoko eta HHko zikloetan ari diren irakasleei IgM eta IgG bereiziz gero, IgM positiboa ematen dutenei PCR egingo zaie. Arrisku kolektiboetakoak diren irakasleak ezin izango dute ziklo horretan klaserik eman Covid-19ak iraun bitartean. Irakasle guztiek egunero lanera sartzera:

- Tenperatura hartzea.

- Eskuen garbiketa.

- 3 urtetik gorakoekin maskararen erabilera

- Gurasoei haurren osasuna baloratzeko protokoloan ezarritako galderak egingo zaizkie.

2020/2021 ikasturtean, ikastetxe bakoitzak autonomia izango du bere ordutegia edo eta ordutegiak antolatzeke; gela bakoitzean taldeak egiteko eta taldeak presentzial edo eta online tartekatzeke ikastetxeak egoki ikusten dituen tarteen arabera (2 eguneka edo dena delako adierazleen arabera antolatuz).

- Espazioak ez dutelako distantzia tartek bermatzeko aukerarik ematen.

- Ikastetxeko ikasle kopurua altua delako.

- Zirkulazio libre, zein espazio desberdinen bidezko metodologietan osasun neurriak bermatzeko.

- Gela barruan egon daitezkeen mailaketei eta Covid19ari begira areagotu direnei aurre egin ahal izateko.

Aukera egongo da normaltasunera bueltatu bitartean: goizeko ordutegia ezartzeko etapa guztietan eta, arrazoi desberdinengatik ikasturtea behar bezala jarraitzeko zailtasunak izan dituztenei edo atzean geratu direnei arratsaldean indartze saioak eskaintzeko.

Arreta berezia jarri beharko da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleengan, gela egonkor eta ZIG geletan. Osasun jarraipen estua egin beharko da.

Halaber, SARS-CoV-2rekin bizi behar garen tartean, 200 ikasletik gorako ikastetxeetan erizain bat jartzea egokia izan daiteke. Halaber, 200 ikasletik beherako ikastetxeetan herriko zein auzoko osasun zentroarekin protokolo bat zehaztuko da, esku hartze eta jarraipenerako.

Ikastetxe guztietan psikologo profesional baten presentzia egotea ahalbidetuko da. COVID-19ak eta konfinamenduak sortutako egoera hainbat ikaslerengan eragin psikologikoa izan du. Hori dela eta, familia zein etxe egoera ezberdinek, zaurgarriak kasu askotan, eragin zuzena izan dute ikasleengan. Beraz, zaintzarako hezkuntza egokia bermatzeko psikologo baten funtzioa ikastetxeetan egotea berebiziko garrantzia izango du.

Heziketa Fisikoko saioak egokitu beharko dira, egoera berriari, osasun neurriak kontutan izanda. Adin tarte batzuetan horretarako aukerarik ez balego, edo momenturen batetan zailtasunak badaude praktikara eramateko, heziketa fisikorako ordua ohitura osasuntsuak, higieine ohiturak, norbere gorputzaren ezagutzarako, elikadura ohiturak eta konpetentziak landu eta eskuratzeko erabiliko da. Halaber aldagelen erabilera ahal den neurrian ekidingo da; lehen hezkuntzan guztiz baztertuz salbuespen egoera honek irauten duen bitartean.

Bigarren Hezkuntzako saioetan aldagela eta dutxen erabilera egiten bada, garbitasun eta desinfekzio neurriak indartu beharko dira eta ikasleentzat protokolo zehatz bat ezarri beharko da. Garbiketa eta desinfekzioa bermatu ezin den kasuetan, aldagelak erabiltzea ekidingo da.


Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntzako lehen zikloan psikomotrizitate saioak ezin izango dira eman, salbuespen egoerak irauten duen bitartean.


Ahal den neurrien gela batetik besterako mugimenduak ekidin beharko dira. Talde bakoitzak gela bakarraren erabilera eginez.

Posible den ikastetxeetan, gela bakoitzean eskuak ura eta xaboiarekin garbitzeko azpiegitura jarriko da.

Pasiloen eta komunen erabilerarako ikastetxe bakoitzak protokolo zehatz eta zorrotza ezarri beharko du eta ikasleekin landu erabilera egokia izateko.

Liburutegi, informatika, laborategi eta teknologia geletan egiten diren lanketa, ikasketa prozesuak beste bide birtual batzuen erabilera bidez ahalegindu beharko da egiten. Horrela ezin den kasuetarako protokoloak zehaztu beharko dira: gela horiek erabiliko dituzten ikasleen, irakasleen erregistro eta monitorizazioarekin, osasun neurriekin, ordutegiekin, garbiketa neurriekin.

- 
- **Irailak 1an edo eta Haurreskolak Partzuergoko ikastetxe bakoitzak familiekin adosturiko egutegian**, Haurreskolak irekiko lirateke.
 - **Irailak 7an:**
 - HH
 - Lehen Hezkuntzako Zikloa.
 - DBHko lehen zikloa
 - Batxilergoko 1goa.
 - **Irailak 14an:**
 - Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. Zikloak hasiko lirateke.
 - DBHko 2. Zikloa
 - Batxilergoko 2.a
 - **Irailak 21an** Unibertsitateko ikasturtea eta Lanbide Heziketa hasiko lirateke. Kanpus eta Lanbide Heziketako ikastetxe bakoitzak ezar dezakeen modu mailakatuan.
 - **Urrian:**
 - Euskaltegiak
 - Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak
 - Hizkuntza Eskola Ofizialak
 - Araubide bereziko ikasketak
 - Arestian aipatutakoa garatzeko udalerrietako jarraipen batzordeak sortu. Udal mailan ikastetxe guztien artean ikasturte hasiera koordinatu ahal izateko eta zuzeneko jarraipena egiteko.



5.- Mugak eta hartu beharreko bestelako erabakiak:

- Dokumentu honetan ezartzen diren epeak orientaziorako epeak dira. Beti ere baldintzatuak egongo direnak Osasun egoerari, Hezkuntzak ikastetxeetan bitartekoak bermatzeko duen gaitasunari eta epeei. Beti ere atzerako itzulera izan dezaketenak konfinamendura.
- Hizkuntza eskola Ofizialak:
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako azterketak ekaineko azken astera atzeratzea proposatzen dugu.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikulazioa uztaileko azken astean irekitzea
- Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Lan Eskaintza Publikoa 2021eko udaran egitea.
- Berritzegune eta Ikuskaritzak ikastetxeei lagundu beharko die 2020/2021 ikasturterako plangintzan salbuespeneko antolakuntza neurriak lantzen eta garatzen.

Kontutan izan behar dugu, ere, udalen eskumena dela eraikin askotako garbiketa, mantenua eta atezaintza zerbitzua. Argi ez badago ere, orain arte egin denaren ildotik, udalek garbiketa/desinfekzioa egin beharko dute eta azpiegitura beharrek hala eskatuta mantenu/egokitzapen lanak ere egin beharko dira.

Horregatik, zuzenean ikastetxeekin harreman iraunkorra izatea eta lan hauek modurik eta planifikatuenean egitea beharrezkoa izango da. Guk udalerrietako planifikazio mahaiak sortzea proposatzen dugu. Era berean, Jaurlaritzak duen Udalaguntza programa, behar berriei erantzun ahal izateko behar adina doikuntzekin sendotu beharko da.

ehbildu